


84.500 ENPRESAK ETA 519.000 PERTSONAK ERABILI ZUTEN EUSKAL AUTONOMIA ERKIDEGOKO ADMINISTRAZIO ELEKTRONIKOA

Euskal Autonomia Erkidegoko 16 eta 74 urte arteko populazioaren % 31,4k eta enpresen ia erdiak Internet erabili zuten 2011n administrazio-harremanetarako




Iturria: EUSTAT. Informazioaren gizaritari buruzko inkesta. ESI Enpresak

Eustaten datuen arabera, Euskal Autonomia Erkidegoko 84.515 establezimenduk (lehenengo sektorekoak alde batera utzita) erabili zuten 2011. urtean administrazio elektronikoa, establezimendu guztien % 47,2k, alegia; 10 lanpostu edo gehiagoko establezimenduetan, bostetik lau baino zertxobait gehiagok erabili zuten (% 84,9k). Hainbat gauzetarako erabili da administrazio elektronikoa: informazioa lortzeko, inprimakiak jaisteko edo prozedura edo izapideak oso-osorik teletramitzeko.


2000. eta 2011. urteen artean, ia bederatziz biderkatu da Administrazio Elektronikoa erabiltzen duten enpresen kopurua. 2010ean izandako erabilera-jaitsieraren ondoren (neurri handi batean establezimendu-kopuruaren beherakada handiaren eraginez, establezimenduen kopuruak % 5,8ko jaitsiera izan baitzuen), 2011n zertxobait gainditu ziren 2009ko zenbakiak, izan ere erabiltzaileen kopurua portzentajezko 2,5 puntu igo baitzen 2010etik.

G.2 Establezimendu kopuruaren eta azken urtean Administrazio Elektronikoa erabili dutenen garapena. Euskal Autonomia Erkidegoa 2000-2011. Δ%




Iturria: EUSTAT. Informazioaren gizarteari buruzko inkesta. ESI Enpresak

G.3 grafikoa Administrazio Elektronikoa erabili duten establezimenduak. Guztira eta 10 lanpostu edo gehiagokoak. Euskal Autonomia Erkidegoa 2000-2011. %



Iturria: EUSTAT. Informazioaren gizarteari buruzko inkesta. ESI Enpresak

G4 Euskal AEko establezimenduak, Internet izan eta Administrazio Publikoarekin izapide elektronikoak egin dituztenak azken urtean (%). 2011



Iturria: EUSTAT. Informazioaren gizaritari buruzko inkesta. ESI Enpresak

Interneteko konexioa daukaten establezimenduen % 34,3k adierazi du administrazio-prozedurak goitik behera telematika bidez izapidetzea lortu duela, eta % 8,1ek administrazioarekin kontratazio-plataformak erabili ditu 2011n.

Establezimenduen herenak, % 34,1ek, modu elektronikoa egiten du BEZaren aitortpena; sozietate-zergaren aitortpena, berriz, % 28,9k egiten du elektronikoki.


2003az geroztik, bostez biderkatu da administrazio elektronikoa erabili duten lehen sektoreko establezimenduen kopurua, nahiz eta oraindik txikia den kopuru hori (% 5,2).

Lehen sektoreko establezimendu guztien % 5,2k erabilia zuen administrazio elektronikoa 2008an. Ehuneko hori % 59,8ra igotzen da 10 lanpostu edo gehiagoko establezimenduen kasuan.

Lehenengo informazio-bilketa 2003. urtean egin zen eta, orduz geroztik, bostez biderkatu da administrazioarekin Internet bidezko harremanak dituzten establezimenduen kopurua. Alabaina, sarera konektatzeko baliabide urriek asko mugatzen dute aukera hori eta, datu-bilketa egindako azken urtean guztira % 13,6 establezimenduk erabili zuten baliabide hori.


Sektoreko 10 lanpostu edo gehiagoko enpresetan —guztien % 0,8—, % 82,6k dauka Internet, baina horietatik % 72,5ek bakarrik erabiltzen du administrazio elektronikoa.

G.5 grafikoa. Administrazio Elektronikoa erabili duten Lehen Sektoreko establezimenduak. Guztira eta 10 lanpostu edo gehiagokoak. Euskal Autonomia Erkidegoa 2003-2008. %



Iturria: EUSTAT. Lehen Sektorean Informazioaren gizarteari buruzko inkesta-ESIP


G.6 Azken 3 hilabetetan Administrazio Elektronikoa erabili duten 16 eta 74 urte arteko biztanleak. Euskal Autonomia Erkidegoa 2003-2012. Milak



Iturria: EUSTAT. Informazioaren gizarteari buruzko inkesta -ESIF

Azken 3 hilabeteetan¹, Euskal Autonomia Erkidegoan bizi diren 16 eta 74 urte arteko milioi erditik gora pertsonak erabili dute administrazioek herritarrekin harremanak izateko eskaintzen dituzten aukerak, guztien % 31,4k, alegia.

G.7 Azken 3 hilabeteetan Administrazio Elektronikoa erabili duten 16 eta 74 urte arteko biztanleak.
Euskal Autonomia Erkidegoa 2003-2012. %




Iturria: EUSTAT. Informazioaren gizarteari buruzko inkesta -ESIF

Seriea daukagunetik lehenengo aldiz, erabilerak portzentajezko 1,5 puntuko jaitsiera izan duela egiaztatu da, hau da, 23.000 erabiltzaile gutxiago izan direla.

Administrazio elektronikoaren erabileran gizonen eta emakumeen artean dagoen aldea, tradizioz gizonen aldekoa izan dena, 2012an irauli egin da zertxobait, eta emakumeek portzentajezko ia puntu bat gehiago lortu dute (gizonek % 31 eta emakumeek % 31,9).

¹ 2003 eta 2008 urte artean, ESIFek informazioa biltzen duen urtearen 2. eta 4. hiruhilekoetan eta, beraz, Administrazio Elektronikokoaren erabilerari buruzko erantzuneko hiruhilekoa inkesta egiten zen urtearen barruan sartzen zen (erabilerari buruzko galdeketa azken hiru hilabeteetan egiten da). 2009tik aurrera, informazioa urtearen lehenengo hilabetean biltzen da eta, beraz, erabileraren erreferentzia-epea aurreko urteko azken hiruhilabetea izango zen. Kasu guztietan, inkesta egin den urtea utzi da.

G.8 Internet erabiltzen duten 16 eta 74 urte arteko biztanleen eta azken hiru hilabeteetan Administrazio Elektronikoa erabili dutenen garapena. Euskal Autonomia Erkidegoa 2003-2012. Δ%



Iturria: EUSTAT. Informazioaren gizarteari buruzko inkesta-ESIF

2005az geroztik, administrazio elektronikoaren erabiltzaile-kopuruaren hazkundeak gainditu egin du internauten kopurua. Baina joera hori eten egin da 2010. eta 2011. urteen artean, lehenengo kopurua % 2 besterik ez baita hazi, bestea % 8,4 hazi den bitartean. Administrazio elektronikoa erabiltzen duten pertsonen kopurua % 4,3 jaistearen arrazoietakoz batzuk honako hauek izan daitezke: 2011aren eta 2012aren artean internauten kopurua % 1,7 besterik ez hazi izatea (2003az geroztik izan den hazkunderik txikiena da hori) eta krisialdia.


Administrazio-moten irudi orokor bat osatzeko, ezinbestekoa da internautek 2012aren lehenengo hiruhilekoan bisitatutako azken webguneen aipamenek ematen duten informazioa jotzea. Alde batetik, azpimarratu beharra dago web-mota guztiei egindako aipamenak kontuan hartuz, aipamenen % 10,8 administrazio-mota guztietako atari publikoei dagozkiela (2011rekin alderatuta, portzentajezko 1,8 puntuko beherakada izan da hor).

Eta, azken horietatik bostetik lau baino zertxobait gehiago dira (% 83,1) euskal administrazioen eta euskal sektore publikoaren atariei dagozkien aipamenak (2011n baino portzentajezko 3,4 puntu gutxiago).

Euskal administrazioaren eta euskal sektore publikoaren web-ak bakarrik kontuan hartuz, aipamenen % 67,1 EAEko Administrazio Orokorrari, bere erakunde autonomoei eta sozietate publikoei dagokie. Ehuneko horretatik % 22,9 dagokie euskadi.net-i eta horri lotutako web-ei, eta % 43,1 erakunde autonomoen eta sozietate publikoen web-ei. Aipatzekoa da Lanbide.net-en aipamenek izan duten igoera handia: 2011n 24.600 izan ziren eta 2012an 43.500.


Foru-aldundien atariak euskal sektore publikoko aipamen guztien % 17,6 hartzen dute eta, udalenean, % 5,7. Unibertsitate publikoak aipamenen % 9,5 jaso du.

G.9. 16 eta 74 urte arteko biztanleek egin dituzten WEB gune publikoen aipamenak, administrazio-motaren arabera. 2005-2012. Euskal Autonomia Erkidegoa. Milak



Iturria: EUSTAT. Informazioaren gizarteari buruzko inkesta -ESI

G.10. 16 eta 74 urte arteko biztanleek egin dituzten Euskal Autonomia Erkidegoko WEB guneen aipamenak. 2005-2012. Euskal Autonomia Erkidegoa. Milak



Iturria: EUSTAT. Informazioaren gizarteari buruzko inkesta -ESIF

**ENPRESEI ETA FAMILIEI ADMINISTRAZIO ELEKTRONIKOAREN
ERABILERARI BURUZ EGINDAKO ESTADISTIKA-DOKUMENTU
NAGUSIETARAKO ESTEKAK**

[E-ADMINISTRAZIOKO KONTZEPTUEN GLOSATEGIA](#)

[EUSTAT. INFORMAZIOAREN GIZARTEARI BURUZKO INKESTA -FAMILIAK-. IGIE](#)

[EUSTAT. INFORMAZIOAREN GIZARTEARI BURUZKO INKESTA -ENPRESAK-. IGIE](#)

[EUSTAT. INFORMAZIOAREN GIZARTEARI BURUZKO INKESTA -LEHEN SEKTOREA-. IGIL](#)